

# ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan  
[1. zk.] 2021eko urtarrila

## EUSKARABIDEAREN EGOITZA BERRIA

*Euskararen Nafar Institutuaren  
zerbitzuak erdiratuz*

### TELELANA

Zer aukera ematen ditu?  
Eraginkortasunez  
erabiltzeko gomendioak

### ITZULTZAILE NEURONALAK

Aitzol Mendiola  
itzultzaileari elkarrizketa

### UDALETATIK

Nafarroako Udal Euskara  
Teknikarien Sarea



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



euskarabidea





# EUSKERAREN ALDEKO SAILLA'REN BERRIAK

«Principe de Viana» Elkargoko «Euskeraren aldeko Sailla»-ren aurtengo lanak aukeratu dira:

Euskerazko esamiñak Bidaso-ko Bera-n eta Saldias-en izanen dira.

Juan den urtean sarituak (premiatuak) izan ziren euskaldun neskato eta muttikoei premioen banakatzeko bestak Igantzi-n eta Doneztebe-n ospatuko dira.

Bi urtean bein Euskal-erri-ko Bertsolari-entzako Txapelketa antolatzen da, aurten beraz izango da. Lenbizikoz Nafarroa-k, Gipuzkoa-k, Bizkaia-k eta mugaz beste aldeko Euskal-erri-ak beren txapelketa eta bigarrena izendatu bear dituzte Norgeiagoka Nagusira joateko. «Principe de Viana»-k Euskaltzaindiaren laguntzarekin Nafarroa-ko seigarren Norgeiagoketa antolatuko du. Bi Txapelketa txiki, edo alderdikoak, izango dira, bata Igantzi-n eta beste Doneztebe-n. Azken Txapelketa Nagusia, Nafarrokoa, Iruñe-an izanen da.

Datozen illetan onako berriak zeaztatuak izango dira eta baita beste berri batzuek ere emango dizkizuegu.



Nafarroako Foru Diputazioko Euskararen Aldeko Saillak Iruñean, 1966ko otsailean, editatutako *Principe de Viana* aldizkariaren gehigarriaren lehen aldeko artikulua, atal honen langaiei buruzkoa.

Artículo del primer ejemplar del suplemento de la revista *Principe de Viana*, editado en Pamplona por la Sección para el Fomento del Euskera de la Diputación Foral de Navarra, en febrero de 1966, sobre los temas de trabajo de esta sección.

# ENAP

Euskara Nafarroako  
Administrazio Publikoetan  
[1. zk.] 2021eko urtarrila

## Koordinatzailea:

Euskara Administrazio  
Publikoetan  
Garatzeko Zerbitzua  
(Euskarabidea)

## Kolaboratzaileak:

Nafarroako Parlamentuko  
Prensa Zerbitzua, Irantzuko  
Mankomunitateko Euskara  
Zerbitzua, Nafarroako  
Gobernuko Itzulpen Atala,  
Vianako Printzea Erakundea,  
EMUN Kooperatiba.

**Diseinua:** cobo-munarriz.com

**Irudiak:** Oscar Munarriz  
eta Freepik

**Argazkiak:** Euskarabidea

**ENAP** aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ENAP** aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

**ISSN:** Esleitzeke.

**Egilea:** Euskarabidea-  
Euskararen Nafar Institutua  
Paulino Caballero 13  
31002 Iruña  
Tel. 848 42 60 54  
[www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)

## AURKIBIDEA

- 4 **Elkarrizketa:** Aitzol Mendiola
- 6 **Erreportajea:** Telelanaren aukerak eta gomendioak
- 8 **Gobernutik:** Hizkuntza planak
- 10 **Udaletatik:** Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea
- 12 **Euskarabidetik:** Egoitza berria
- 13 **Hiztegi terminologikoa:** Gobernuaren egitura eta prozedurak
- 14 **Parlamentutik:** Euskaltzaindiarekiko hitzarmena
- 15 **Ohar historikoa:** Euskara XVI. mendeko Nafarroako administrazioan

\* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena [euskarabidea@navarra.es](mailto:euskarabidea@navarra.es) helbidera.



# Aitzol Mendiola

Nafarroako Gobernuko itzultzailea da; berarekin partekatu ditugu itzultzaile neuronalei buruz ditugun zalantzak.



## Itzultzaile neuronalak, geratzeko etorri dira?

**Noiz hasi zinen itzultzaile munduan?** Gogoan dut institutuko garaian irakasle batek etxerako ariketa gisa euskalkietako testuak ematen zizkidala, euskara batuan paratzeko. Oso gustuko ariketa nuen. Gero, 19-20 urtetan, jada egiten nituen itzulpenak kide nintzen elkarteendako, baina modu profesionalean, 2002an hasi nintzen.

**Zergatik erabaki zenuen lanbide honetan aritzea?** Euskara lan tresna izan dut beti, helduen irakasle, euskara teknikari-eta ari nintzen, eta izena eman nuen Nafarroako Parlamentuko itzultzaile-interpretaren zerrenda

baterako, zer gerta ere. Handik hilabete batzuetara deia jaso nuen. Ez dakit hautu kontziente bat izan ote zen.

**Kontaiguzu nolakoa izan zen zure hastapena, nola lan egiten zenuten? Antolamendua nolakoa zen?** Laneko prozedura hura eta gaurkoa aski antzekoak direla uste dut. Dokumentu bat jaso, itzuli, lankide bati zuzentzeko eman, zuzentzeko txertatu eta dokumentua igorleari entregatu. Iruditzen zait hemendik aitzina etorriko direla aldaketa handiak, iraultzaileak lanaren antolamenduari dagokionez, gure zereginak bestelakoak izanzen baitira etorkizunean.

### Itzulpenak egiteko aplikazioak, edota teknologia berriak baliatzen dituzue gaur egun?

Bai. Ni 2008an hasi nintzen itzulpen-memoriak kudeatzeko aplikazioekin lanean, hasiera batean Wordfast izeneko tresnarekin eta ondoren Tradosekin. Aldea nabarmena, lehenagoko lan egiteko moduarekin, bai testuen barne koherentzia eta baita testuak sortzeko abiadura ere, itzulpen-memoria horiek lehenago itzulitako esaldiak eskaintzen baitizkiote itzultzaileari.

**Itzultzaile neuronalak berriki argitaratu dute, eta edonoren eskura dago. Erabiltzen duzue zure lanean?** Bai, bai, nik aldiro. Gure artean denetariko joerak daude, badaude tresna hau maite ez dutenak, inertzia zaharrari eusten diotenak, badaude tarteka erabiltzen dutenak eta bagaude aldiro erabiltzen dugunak.

**Tresna honen abantailak zeintzuk dira?** Orain arteko itzultzaile automatikoak, euskarari dagokionez, ez ziren oso onak. Itzultzaile neuronalak, aldiz, oso emaitza onak ematen ditu. Memoriak kudeatzeko tresnan txertatzen denean (laster izanzen da hori), kasik teklatuari ere utziko diogu. Tresna zoragarria da. Neuronalaren ondotik literaturakoak ez diren testuen itzulpenean jauzi bat egonen da; mugari bat izanzen da.

**Eta abantailak ez direnak ere atzeman dituzue?** Tira, zoragarria bai, baina tentuz hartzeko tresna ere bada. Ez da perfektua. Baditu bere tranpak. Esaterako, zenbaitetan, esaldi guztiz gramatikalak eta logikoak sortu arren, esanahia ez da izaten jatorrizkoaren berdin-berdina. Omisioak ere egiten ditu, hots, jatorrizko testuaren barneko esaldiren bat jaten du zenbaitetan. Atzerakargarako joera ere badu, hau da, aditza beti amaieran jartzeko joera. Eta terminologia ere tentuz zaindu beharrekoa da, gai delako testu berean termino bat, bi edo hiru modu desberdinetan emateko. Ortografiari dagokionez ere, azken erabakiak ez direnez itzultzaile neuronalean automatikoki eguneratzen, argi ibili behar da. Alabaina, akats horiek guztiak kontuan hartuta ere, tresna iraultzailea dela esan daiteke.

**Asko aldatu al da zuen lan egiteko modua?** Oraindik, oro har, betiko moldean ari gara, tresna hau ez da guztiz txertatu lankide guztien lan egiteko moldean, baina etorkizun labur batean, uste dut itzultzaile izateari utziko diogula, nolabait esatearren, eta testuen editore bihurtuko garela. Tresnak egiten dizkigu itzulpenak eta gure arduraren izan da itzulpen horien kalitatea zaintzea eta behar diren moldaketa guztiak egitea. Ez dut uste etorkizunean zentzurik izanzen duen tresna neuronal baten bidez egindako itzulpen bat lankide bati emateak hark zuzendu dezan. Eta itzultzaile+zuzentzaile lanak kendu eta zuzenean editore bihurtuta, eguneko maneja dezakegun itzulpenen kopurua asko hazi beharko litzateke.

**Herritarrek modu erraz batean egin ditzakete itzulpenak. Honek bide berri bat irekitzen du?** Bai, hala da. Tresna hau erabil dezakete, batetik, itzultzaileek, beste baten testua itzultzen dutenek. Baina, bestetik, oso baliagarria da, era berean, bi hizkuntzekin ongi moldatzen direnendako, beraiek sortutako testu bat ele bitan arin emateko, neuronalak itzulpenaren lan astunena kentzen dielako, eta jatorrizkoa euskaraz landu dezaketelako eta gero gaztelaniaratu, zein alderantziz. Oso lagungarria da, baina tentuz erabili behar da, ez duelako balio ematen digun itzulpena bere horretan ontzat jotzeko. Ematen digun itzulpena arretaz irakurri behar da, jatorrizkoarekin konparatu, behar diren zuzentza guztiak egin eta, ondoren, ontzat eman. Euskaraz txukun idazteko gai den herritarrendako berebiziko tresna da, itzulpen gordin bat emanen dielako. Baina landu egin beharko du itzulpen gordin hori, taxutu, balekoa izan dadin. Pentsatu behar dugu tresna hau errepedeko nabigatzaile baten gisako zerbait dela. Tentuz ez bazabiltza, itsuki sinesten badiozu esaten dizuna, mendiko pista batean bukatuko duzu, helmugara iritsi gabe, edo izen bereko beste herri batean. Tresna ez da adimenduna, adimenduna erabiltzailea da. Eta, beraz, jakin behar da testuaren kontrola norberak izan behar duela.

**Euskaraz jakitea ezinbestekoa da tresna erabiltzeko?** Ez, ez da ezinbestekoa. Izan ere, erdaldunendako oso baliagarria da, euskarazko testuen esanahia zein den jakiteko. Euskaratik gaztelaniarako norabidean oso ongi dabil. Administrazioan

joera dago testu bat euskaraz sartzen denean, dena delako funtzionario erdaldunak zuzenean itzultzaileei igortzeko, zer den, zertaz ari diren eta zer esaten den jakin gabe. Tresna honekin testuaren gutxi gorabeherako ideia bat egin dezake, eta muntaren arabera, itzulpen zehatzago bat eskatu. Horretarako bikaina da. Beste kontu bat da euskaraz jakin ez eta uste badugu itzultzaile neuronalak erabiltzaile euskarara testu bat itzuli dezakegula. Horretarako ez du balio. Izan ere, gauza bat argi izan behar da: tresna honen erabiltzaileak xede hizkuntza ongi jakin behar du. Aurreko galderako konparazioa baliatuz, gidatzen jakin behar du. Euskarara itzuliko bada, tresnaren erabiltzaileak euskaraz jakin behar du. Ez da, inolaz ere, giza itzultzaile baten ordeko, ez du kalitate maila hori ematen.

**Administrazioko langileok gure egunerokoan erabiltzeko moduko tresna dela iruditzen zaizu?** Administrazioako testuekin oso ongi dabil, eta guztiz egokia da elebidunendako, baita testu administratiboekin ohituta ez badaude ere. Betiere, aurrez aipatu ditugunak kontuan hartuz gero, jakina. ■

### Resumen:

La entrevista trata sobre los traductores automáticos neuronales que se utilizan en euskera. Estas herramientas están al alcance de todas las personas que tengan interés, para ello, facilitamos el enlace de uno de ellos.

# Telelanerako gomendioak


Koronabirusak eragindako osasun krisiaren ondorioz, martxotik hona telana eguneroko ogi bihurtu zaigu, eta gainera, badirudi luzerako izango dela. Hori dela eta, modu eskematikoan honako aholkuak sortu ditugu euskara eta berrikuntza sozialean diharduen EMUN kooperatibarekin elkarlanean.

## ORDUTEGIA

- \* Zehaztu lan egingo duzun denbora-tartea, ez da komeni lanaldia egunero aldatzea.
- \* Finkatu bukatzeko ordua.

## TENPERATURA

- ❄️ Negua: 20-24° C
- ☀️ Uda: 23-26° C



## AULKIA

- \* Egonkortasuna, konforta eta mugimenduen askatasuna.
- \* Bost euskarri eta gurpil.
- \* Eserlekuaren altuera erregulagarria.
- \* Bizkarralde etzangarria eta altuera erregulagarria.
- \* Irtengune lunbar arina.
- \* Eserleku eta bizkarralde koltxatuak.
- \* Beso euskarriak izatekotan, kengarriak izan behar dira.

## PANTAILA

- \* Pantailako irudiak egonkorak eta islarik gabeak izan behar dira.
- \* Pantaila izan beharko da langilearen beharren arabera orientagarria eta inklinagarria.
- \* Erabiltzaileak aukera eduki beharko du ingurunearen ezaugarriak aldatzeko.
- \* Plataforma independente bat erabili ahalko da pantailaren altuera doitzeko.

## MAHAIA

- \* Mahaiak espazio nahikoa izan behar du eta egokitua egon behar da jarrera aldaketak ahalbidetzeko espazioak izateko.
- \* Erabilera-maiztasunaren arabera kokatuko ditugu lan-tresnak:
  - Telefonoa, boligrafoak, teklatura...
  - Dokumentuak, karpetak...
  - Agenda, liburuak...

## TEKLATUA

- \* Pantailarekiko independentea eta inklinagarria izan beharko da, ez dezan nekerik eragin beso eta eskuetan.
- \* Teklatuaren eta mahaiaren ertzen artean nahikoa espazio egon beharko da besurreak bermatzeko.
- \* Lurrarekiko paraleloan egon beharko da, eta eskumuturra, eskua eta besurrea lerrokaturik dauden altueran.
- \* Teklatuaren gainazala matea izan beharko da, islak ekiditeko.

Lantaldeko kideekin harremanetan jarraitu. Aplikazio asko daude online bilerak egiteko, eta kontzeptuak argitzearren, hemen ditugu birtualki komunikatzeko lau bide:

- ▶ **Bideo-deia:** telefono mugikor baten bidez egin daitekeen komunikazio azkar eta informala da. Normalean, bi pertsonen arteko elkarrizketa espontaneo egiteko erabiltzen da, audio eta bideo bidez.

- ▶ **Bideokonferentzia:** komunikazio formalagoa da, eta bi pertsonak baino gehiagok hartzen dute parte. Nagusiki ordenagailu batetik egiten da, dokumentuak, grafikoak eta irudiak partekatze edo parte hartzen duenaren pantaila proiektatzeko. Lan-eremuetan erabili ohi da, hala nola bileretan, lan-elkarrizketetan eta urruneko lankidetzan, parte-hartzaile guztiek esku har dezaten.



- ▶ **Live Streaming:** zuzeneko bideo-transmisioak dira, batez ere profesionalak edo komertzialak. Ikusleekin txat bidez jarduteko, transmisioa grabatzeko eta ikusleen analitikak ikusteko aukera ematen dute. Besteak beste, trebakuntzetarako, biltzarretarako, eztabaidetarako eta produktuak aurkezteko erabiltzen da.

- ▶ **Webinar:** batez ere merkataritza –edo hezkuntza– izaerako komunikazioa da, publikoari informazioa aurkezten diona. Komunikazioa zentzu bakarrean gertatzen da, hau da, hizlaria ikusi eta entzun egiten da, baina ezin da zuzenean berarekin elkarreragin. Trebakuntzetarako, mintegietarako edo tresnaren bat erabiltzeko jarraibideak emateko erabiltzen da.

Este reportaje ofrece consejos sobre el **teletrabajo**, para poder realizarlo de manera más efectiva. Hay que cuidar desde los aspectos ambientales hasta el mobiliario y la utilización de medios comunicativos adecuados para cada tipo de reunión.



# Hizkuntza planak 2020-22 Nafarroako Gobernuan

**103/2017 Foru Dekretuak**, azaroaren 15ekoak, **euskararen erabilera arautzen du** Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. 6. artikulua, hizkuntza plangintzari buruzkoak, zehazten du **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentu bakoitzak bere hizkuntza plana prestatuko duela**, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren koordinazioarekin. Nafarroako Gobernuko departamentuen berregituraketak hauen hizkuntza plangintzaren berrikusketa eskatu du definizio, egitura, eskumen eremu eta funtzio berrietara egokitzeko, aurretik onartutako planen oinarritzko egitura mantenduz. Planek 2020, 2021 eta 2022 urteetan aurrera eramango diren ekintzak jasotzen dituzte.

## ZERBITZU PUBLIKOAK

Euskararen I. Plan Estrategikoak esaten du Administrazio Publikoek euskaraz zerbitzuak emateko duten gaitasuna hobetu eta euskarazko eskaintza zabaldu behar dutela.

## PLANEN HELBURUAK

- \* Beharrezko hizkuntza nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan.
- \* Euskarazko prestakuntza eskaintzea departamentuko lehentasunezko unitate organikoetako langileei.
- \* Beharrezko neurriak hartzea hala eskatzen duten pertsonak euskaraz artatzeko.
- \* Herritarrei ele biko informazio idatzia eskaintzea (digitala eta paperekoa).
- \* Errotulazioa eta informazio elementuak ele bitan izatea: hizkuntza paisaia.
- \* Zerbitzu publikoak esleitzeko orduan, hizkuntza irizpideak ezartzea.

**Nafarroako Gobernuko** 13 departamentuek beren hizkuntza plan propioa onartu dute, foru agindu bidez. Departamentu bakoitzean arduradun bat eta laguntzaile bat izendatu da, Euskarabideko teknikariek batera, plana aurrera eramateko.

## DEPARTAMENTUETAKO TALDE ERAGILEAK SORTU:

Departamentuko arduraduna eta teknikariak, Euskarabidearen koordinazioarekin.

## PROZEDURA

## DEPARTAMENTUETAKO EGOERA AZTERTU:

- \* Dokumentazioaren diagnostia.
- \* Harreraguneak.
- \* Hizkuntza eskakizunen eta prestakuntza beharrak.
- \* Hizkuntza paisaia
- \* Komunikazioen azterketa.

## EKINTZAK PLANIFIKATU:

- \* Lehentasunak ezarri, ekintzetan eta eragin-eremuetan.
- \* Kronograma adostu.

## NEURRIAK MARTXAN JARRI:

- \* Hizkuntza eskakizuna beharrezko lanpostuetan ezarri.
- \* Itzulpenak bideratu.
- \* Hizkuntza paisaiaren egokitzapena.
- \* Euskarazko prestakuntza eskaintzea lehentasunezko unitateetako langileei.
- \* Neurrien jarraipena.

## EN MARCHA LOS PLANES LINGÜÍSTICOS 2020-22 EN EL GOBIERNO DE NAVARRA

El Decreto Foral 103/2017, de 15 de noviembre, regula el uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra, en sus organismos públicos y en las entidades de derecho público dependientes. El artículo 6, Planificación lingüística, determina que los departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra elaborarán sus respectivos planes lingüísticos con la coordinación de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera.

Nahi baduzu,  
nirekin euskaraz



## UDALETATIK:

Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea

# Tokiko euskara zerbitzuak: hiru hamarkada herritarren zerbitzura

*Tokiko euskara zerbitzuak gaur egun herritarrentzako erreferentzia instituzional hurbilena eta eskuragarriena dira euskararen normalizaziorako bidean.*



Gaur egun 28 euskara zerbitzu daude Nafarroako hainbat toki entitatetan. Bertan, 31 teknikari ari dira lanean, eta haien zeregin nagusia da hizkuntza-normalizaziorako eta euskararen sustapenerako jarduerak prestatzea, gauzatzea, kudeatzea eta kontrolatzea, gizarte-bizikidetzaren esparru guztietan euskararen erabilera normala eta ofiziala berreskuratzea, garatzea eta arautzea helburu duten ekimen guztietan.

Urte hauetan guztietan 100 profesional inguru aritu dira uneren batean euskara teknikari, eta oraindik ere zerbitzu berriak sortzen ari dira.

Azkenak, Izarbeibarko Mankomunitatekoa, Irantzu Mankomunitatekoa eta Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalekoa.

Euskara zerbitzuak sortu zirenean, teknikariek prestakuntza espezifiko gutxi eta esperientzia gutxi zuten arlo horretan. Horrek, kanpainak eta jarduerak banaka egiteko zailtasunarekin batera, elkarrekin lan egiten jartzea ekarri zuen, ahaleginak eta baliabideak bateratzeko. Horrela, 25 urte daramatzate sarean lanean, elkarrekin eta modu koordinatuan proiektuak eta kanpainak abian jartzen, eta betiere euskararen normalizazioa helburu nagusizat hartuta.

## UDALETATIK:

Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea

## NAFARROAKO EUSKARA ZERBITZUAK ELKARLANEAN



Euskara zerbitzuen eginkizun nagusiak honako hauek dira:

- \* Udalerrian euskararen erabilera eta sustapenerako proiektuak, plan sektorialak eta jarduerak diseinatzea, planifikatzea eta ezartzea.
- \* Udal-langileak euskalduntzeko planarekin lotutako kudeaketak sustatzea eta gauzatzea.
- \* Udal-eremuan euskararen erabilera eta sustapena arautzen duten ordenantzak prestatzea, garatzea eta horien jarraipena egitea.
- \* Toki entitatearen dokumentazio ofiziala euskaraz eskaintzen dela bermatzea, eta horretarako baliabideak jartzea.
- \* Herritarrei arreta, informazioa eta argibideak ematea euskararen garapenari eta sustapenari buruzko gaien kudeaketan.
- \* Euskararekin zerikusia duten herritarren mugimendu eta ekimenei laguntzea, hizkuntza sustatzeko eta berreskuratzeko ahaleginak partekatuzko.
- \* Hamaika dira zerbitzu horiek banaka edo batera garatzen dituzten proiektuak, eta horiek aurrerago, beste artikulatu batzuetan, azalduko ditugu.

Une honetan, honako hauek dira euskara zerbitzua duten toki entitateak:

- \* **Udalak:** Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Auritz, Barañain, Baztan, Berribeiti, Berriozar, Burlata, Galar zendea, Oltza zendea, Erroibar, Esteribar, Etxauri, Lizarra, Uhartea, Lizoainibar-Arriasgoiti, Luzaide, Orkoién, Iruña, Gares, Tafalla, Eguesibar, Aurrarabia, Zizur Nagusia.
- \* **Mankomunitateak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Irantzu, Malerreka, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, Sakana, Izarbeibar.
- \* **Batzar Orokorrak:** Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu.

Los servicios municipales de euskera llevan tres décadas trabajando en la realización, gestión y control de los planes de actuación para la normalización lingüística y promoción del euskera. En la actualidad son 28 los servicios de euskera repartidos por distintas entidades locales de Navarra, donde trabajan en red 31 técnicas y técnicos de euskera.






# Euskarabidearen egoitza berria

Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomo gisa 2007 urtean sortu zuenetik, hainbat egoitzatan egin du hark ibilbidea, bere zerbitzuak toki ezberdinetan eskainiz. 2020aren amaieran Euskarabidea egoitza berri eta bakarrean hasi da bere zerbitzuak eskaintzen, Iruñeko Paulino Caballero 13 helbidean.



Euskarabideak, besteren artean, honakoak ditu bere baitan: Nafarroako Gobernuko itzulpen zerbitzua, langile publikoentzako euskaltegia, euskararen sustapenerako eta aholkularitzarako bulegoak eta euskararen liburutegi espezializatua. Lehen aldiz, egoitza berean arituko dira lanean. Halaber, Euskararen Nafar Kontseiluko bilkurak eta bestelako ekitaldi batzuk egiteko moduko areto nagusi bat ere badu. ■

Langile publikoentzako euskaltegi ikasgela bat.



Bilkura eta ekitaldietarako Areto Nagusia.



Euskararen liburutegi espezializatua, Nafarroako Liburutegien sarean dagoena.



Osasun neurriak bermatu dira egoitza berrian.

El organismo autónomo del Gobierno de Navarra **Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera** ha comenzado a prestar sus servicios de manera unificada en su nueva sede, en Paulino Caballero 13

## HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

### Gobernuaren egitura eta prozedurak

<b>Nafarroako Gobernu</b>	.....Gobierno de Navarra
<b>Departamentua</b>	.....Departamento
<b>Gobernu Kontseilua</b>	.....Consejo de Gobierno
<b>Lehendakaria</b>	.....Presidenta/e
<b>Lehendakariordea</b>	.....Vicepresidenta/e
<b>Kontseilaria</b>	.....Consejera/o
<b>Zuzendari nagusia</b>	.....Director/a general
<b>Zuzendari kudeatzailea</b>	.....Director/a gerente
<b>Zuzendariordea</b>	.....Subdirector/a
<b>Idazkari nagusia</b>	.....Secretaria/o general
<b>Zerbitzuko zuzendaria</b>	.....Director/a de Servicio
<b>Atalburua</b>	.....Jefa/e de Sección
<b>Bulegoburua</b>	.....Jefa/e de Negociado
<b>Teknikaria</b>	.....Técnico
<b>Administraria</b>	.....Administrativa/o
<b>Erakunde autonomoa</b>	.....Organismo Autónomo
<b>Epaimahaia</b>	.....Tribunal
<b>Zuzendaritza</b>	.....Dirección
<b>Burutza</b>	.....Jefatura
<b>Arduraduna</b>	.....Responsable
<b>Batzordea</b>	.....Comisión
<b>Lantaldea</b>	.....Grupo de trabajo

<b>Lege Organikoa</b>	.....Ley Orgánica
<b>Errege Dekretua</b>	.....Real Decreto
<b>Foru Legea</b>	.....Ley Foral
<b>Foru Dekretua</b>	.....Decreto Foral
<b>Gobernu Akordioa</b>	.....Acuerdo de Gobierno
<b>Foru Agindua</b>	.....Orden Foral
<b>Ebazpena</b>	.....Resolución
<b>Txostena</b>	.....Informe
<b>Aurrekontuak</b>	.....Presupuestos
<b>Partida</b>	.....Partida
<b>Zuzenketa</b>	.....Enmienda
<b>Eskura jartzea</b>	.....Puesta a disposición
<b>Diru erreserba</b>	.....Reserva de crédito
<b>Lizitazioa</b>	.....Licitación
<b>Baldintza-agiria</b>	.....Pliego de condiciones
<b>Deialdia</b>	.....Convocatoria
<b>Dirulaguntza</b>	.....Subvención
<b>Inbertsioa</b>	.....Inversión
<b>Esleipena</b>	.....Asignación
<b>Faktura</b>	.....Factura
<b>Ordainagiria</b>	.....Recibo
<b>Kontu-hartzailea</b>	.....Interventor/a
<b>Jakinarazpena</b>	.....Notificación



## PARLAMENTUTIK:

Euskaltzaindiarekin hitzarmena

# Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana



**Nafarroako Parlamentua**  
2015. urteaz geroztik lankidetzan ari da Euskaltzaindiarekin hainbat proiektu elkarlanean aurrera eramateko, bi instituzioek berrituz joan den hitzarmena sinatu zutenetik.

Hitzarmen horren xedea da, besteak beste, euskarazko Hiztegi Juridiko lexikografikoa hobetzea. Lan hori "Lexikoaren Behatokia" izeneko proiektu zabalago batean txertatzen da, zeinak egungo euskararen 68 milioi hitz-testuko base bat baitauka jadanik, esparru eta formatu desberdinetan erabiliak.

Ekimen horren helburua bikoitza da. Alde batetik, kontsultagarri egotea, Euskaltzaindiak jaulkitzen dituen arauak eguneratu nahiz etorkizunean aldatzeko xedez egiten dituen ikerketa-lanetarako. Eta, bestetik, funtsezko atal bat izan nahi du XXI. mendeko Euskararen Corpusha izeneko langintza hedatsu batean, zeinari etorkizunean ekin nahi baitio Euskaltzaindiak. Horrenbestez, eta bi helburu horietan sakondu ahal izateko, ezinbesteko gertatzen da Lexikoaren Behatokia proiektuan jasotako testuen jatorria aberastu eta ugaritzea.



Elkarlan honen beste helburu batzuk dira lexiko parlamentarioa bateratzea, Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean, eta antzinako euskarazko testu juridikoen erakusketa bat antolatzea Nafarroako Parlamentuan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Akitania Berriko Eskualdeko Conseil Regional delakoaren laguntzaz eta egoki diren azalpenez lagunduta.


Gogoratu beharra dago Euskaltzaindiak 1918an hasi zuela bere sorrera prozesua Nafarroako Foru Aldundiaren partaidetzarekin, eta 2018-2019 urteetan bere mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituela.

El Parlamento de Navarra lleva desde 2015 colaborando con Euskaltzaindia en el estudio y difusión de los textos jurídicos en euskera.

## OHAR HISTORIKOA

## XVI. mendea: euskara Nafarroako administrazioan

Atzerritarren testigantzetan irakur daitekeen bezala, XVI.-XVII. mendeetan Nafarroako populazioaren zati handi bat euskalduna zen; asko, gainera, elebakarrak. Hori dela eta, Nafarroako erakunde nagusietan eguneroko lan-hizkuntza euskara zen.



(Iturria: MONTEANO SORBET, PEIO, *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*, Iruña, 2017)

### Zer irudi zuten atzerritarrek nafarrei buruz?

- XV. mende amaiera, Von Harff alemaniarra: *hizkuntza propioa dute.*
- 1516, Milango merkataria bat: *euskaraz hitz egiten dute, hizkuntza ezberdina da eta ez du loturarik ez gaztelaniarekin, ez frantsesarekin ez eta gaskoiarekin ere.*
- 1535, Juan Rena, Iruñeko gotzaina: Carlos V.ari Italiari lagundu zion eta handik Iruñera idatzi zuen

laguntzeko 2-3 mutil gazte bidaltzeko eskatuz. 4 baldintza jarri zituen: nafarrak izatea, altuak, indartsuak eta gaztelaniaz komunikatzeko gai izatea.

- 1572, Aita Santuaren enbaxada: *ikasteko hizkuntza zaila da eta ezin izan dut hitz bat bera ere ulertu.*
- 1611, Jacobo Sobieski, Poloniako erregearen aita: *ez dut ezer ulertu, ez baitu ez gaztelaniaren ez eta polonieraren antzik.*

Epaitegiara deklaratzera joaten ziren herritar gehienak euskaldun elebakarrak zirenez, notarioek eta eskribauak derrigorrezkoa zuten euskara ondo menperatzea; testigantzak euskaratik gaztelaniara pasatzeko itzultzaileak debekatuta baitzeuden. Batetik, lekukoek gaztelaniaz ez bazekien engainatu egin zezaketelako deklarazioa hartzeko garaian eta, bestetik, itzultzean akatsak egin zitzakeelako.

### Funtzionario izateko baldintzak:

- \* Postua familiako norbaiti uzten zitzaion.
- \* Iruñean bizitzea.
- \* Itzultzaileak debekatuta.
- \* Lanak banatzeko zerrenda bakarra.

Lanpostua bete ahal izateko euskara jakin beharra ez zen eragozpen bat, ordea. Izan ere, funtzionario kargua familia barruan

eskualdatzen zen; aitarengandik semearengana edota alabaren senararengana; kasu horietan ezkontzak aurrez adostuta egoten ziren. Notario zein eskribau karguak beti gizonen esku egoten eta gainera, gehienak, euskal elebakarrak ziren. Funtzionarioek bete beharreko baldintza zen Iruñean bizitzea, eta aipatu berri ditugun bi faktore horiei esker, administrazioa elebiduna zen. Langile gehienek euskara etxean jasotzen zuten eta gaztelania, ofizioarekin batera, lanerako ikasten zuten.

XVIII. mendearen atarian gauzak aldatzen hasi ziren; Erresumako 22 eskribauetatik 17 elebidunak ziren (euskaraz eta gaztelaniaz zekiten eta bost elebakarrak (gaztelaniaz soilik zekiten). Lanak banatzeko garaian zerrenda bakarra erabiltzen zuten eta gaztelania soilik zekitenak kexatu egin ziren: lan askori ezezkoa eman behar izaten

zietela ezin zituztelako testigantzak euskaraz jaso. Hori dela eta, 1697an lanak bi zerrendatan banatzeko eskatu zuten: Mendialdekoak euskara zekitenen artean eta Erriberakoak beraien artean.

Euskaldunak neurri haren aurka agertu ziren; aldarrikatu zuten haiek gai zirela nafar guztiei zerbitzu emateko. Euskaraz ez zekitenek euskara irakasteko prest agertu zenik ere izan zen. Azkenean, Nafarroako Epaitegi Gorenak euskaldunei eman zien arrazoia eta ordura arte bezala, lanak zerrenda bakarraren bidez banatzen jarraitu behar izan zuten. ■

En la Navarra del siglo XVI era común el conocimiento del euskera entre el funcionariado, especialmente en el ámbito de la justicia



[www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



euskarabidea